

telebista ♦ irratia

‘Goenkale’-ren 1.100.a

Gaur ere ospakizun eguna dute euskarazko telesail arrakastatsuko egileek

Erredakzioa / Donostia

Goenkale telesailak egun garrantzitsua du gaur, 1.100. kapitulu eskainiko dute eta. Seigarren denboraldia du hau, eta zenbait ustekabe prestatu dituzte.

EGUNA joan eta eguna etorri, Arraldeko bizilagunek ETB1eko ikusle askoren arreta bereganatzea lortu dute; izan ere, seigarren denboraldia hasi zuen irailan, eta aurrera egiteko beldurrik ez du. ETBk eta Pausokak ekoiztako lana da.

Gaurko kapituluak, Aitorrek (Iban Garate) berriro Elenerekin (Aintzane Gamiz) hastea erabaki du, baina, hori dela eta, Olga (Judith Mariezkurrena) haserretu egingo da, egun batzuk ari nago Aitorrek bera maite zuela esan zion eta. Aitorrek ez du gai horren gainean inorekin berba egiterik gura, gaitza egin zaio-eta bien artean bat aukeratzea. Erabaki horrek arazoak baino ez dizkio ekarriko Aitorri.

Kutsaduraren arazoa, bestalde, gero eta larriagoa dela eta, Isaiasen aurka (Jose Ramon Fachado) salaketa jarri duela esango du Imanol Mendizabal enpresariak (Iñaki Perurena). Horren berri jakitean, Isaias sutan jarriko da, eta anaia bien arteko haserrea gehiago berotuko da.



Bertatik Bertara magazinaren ostean ematen dute *Goenkale*, 21:50ean.

Ustekabe bat edo beste

Bien bitartean, Mikel (Iñaki Beraetxe) eta Txapas (Jose Mari Berasategi), eskalearen kontuarekin, batera eta bestera dabiltza. Bar Sobiara jotzen zen gizon misterioak hilda aurkitu zuten behin, eta gorpua sotoan gorde zuten. Baina bat-batean hilotza desagertu egin zen, eta gertaera ilun horrek ustekabeak besterik ez zizkien ekarri biei. Gaurko atalean sorpresaren bat izango da kontu horren gainean.

Azken hilabeteetan zintzilik egon diren beste zenbait

gai ere argituko dira datozen egunetan. Leonorrek (Ainhoa Aierbe), esate baterako, Koldo (Iñigo Larrinaga) eta bien etxean topatu zuen egunerokoa norena den erakutsiko dute laster, eta bide batez, amodio gutunetan aipatzen den emakumea ezagutuko du.

Arantxa (Itziar Gomez) irrati esatariaren infernua ere laster amaituko da. *Adiskide maitea* saioan jaso dituen mehatxu deiak nork eginak diren argituko da, baina Arantxaren bizia arriskuan egongo da.

Hortentsi (Arantxa Gurmendi), aldiz, Alfredorekin

(Patxi Ugalde) ezkontzen saiatuko da berriro ere.

Julen Murua (Manex Rikarte) gaztearen ametsa ama berriro ikustea da. Izan ere, Angela (Aitzpea Goenaga) Galiziako errotxe batean sartu zuen Isaiasek, eta ordutik seme-alabek ez dute haren berri izan. Julenek ama Arraldera ekarri nahi du, eta aurrerapauso garrantzitsua emango du.

Herrira etorriko diren beste lagun bi Beatriz Sobiako kamarera ohia (Idoia Urrangal) eta Don Luis apaiza (David Errazti) dira. Denboraldi batez Arraldetik kanpo izan dira.

laburrean

Espainiako telebistek aurtengo otsailean iazkoan baino iragarki gehiago sartu dituzte, %16,4 gehiago

Medianetwork enpresak Espainiako telebista kateetan sartu duten iragarki kopurua neurtu du, eta Europa Press berri agentziak datu horien berri eman du. Horien arabera, iazko otsailean baino iragarki gehiago eskaini dituzte aurtengoan, %16,6 gehiago. Beste modu batean esanda, 738 minutu osatu zuten iaz iragarki tarpeek, eta aurten, berriz, 859 minutu. Iragarki kopuruari dagokionez, berriz, 153.056 iragarki sartu dituzte joan den hilabetean, eta 126.674 joan den urtean.

New Yorkerako bidaiaren zozketa egingo dute gaur ‘Sorginen laratza’ saioan

Lagun birenzako New Yorkerako bidaiaren zozketa egingo dute gaur *Sorginen laratza* ETB1eko saioan. Astebeterako bidaiak izango da, eta programara deitu dutenen artean egingo da zozketa. Bestalde, Luis Elberdin sexologoak hezkuntza sexuala izango du hizpide, eta elkarrizketaren tartean Donostiako ezkontza agentzia bateko ordezkaria egongo da. Ezkontza agentzia horrek baserri girokoak ditu bezero gehientsuenak. Musikaren tartea, berriz, Dulce Pontes kantari portugaldarraren doinuek osatuko dute, besteak beste. Goierri Airline- sen beste atal bat ere izango da saioan.

Dokumental ‘faltsuen’ gainekoa izango da gaur ‘Metropolis’

Dokumental *faltsuen* gaineko saioa izango da gaur *Metropolis*, Espainiako Telebistako bigarren katean (La2). Errealitatea eta fikzioa nahasten duten dokumentalez mintzatuko dira; eta horretarako, Victoria Mapplebacken dokumental bat eskainiko dute. Ohi legez, gauerdian hasiko da *Metropolis*.

txoritxoari mokoka

♦ Ines Intxausti

PROBIDENTZIAK emandako oportunistak direla eta, igandetik Nafarroan nago Sara Lostauren esistentzia frogatu nahian. Maiteok, hura ez zen *Expediente NafarX* bat. Lakarren bilatu nuen, guztiz laket eta gogulant. Orain Azkona herri energetikoan gaude biak, atsedena hartzen. Hobeto esanda, estresaren inertziari neurria hartzen, hemendik jaitsi baino lehenago. Gaur, Urederrara igo baino lehen, marrubiak gosaldutugu. Eta bidean, nola ez, telebistari buruz besterik ez gara mintzatu (baietz!).

Joan den igande gauean, adibide gisa, Pepe Carvalhoren telesaila ikusi gcnucn. Esperientzia Milango Scala Aretoko eskailerak biluzik eta abarka

Sara Lostauren bila

bakar batekin agertzea bezain paradoxikoa suertatu zen hemengo latitudeetako bake erdian Pepe Carvalhoren istorioak ikustea. Hemengo biztanleak konplexurik gabe bizi arren, telebista bana edo bina dute etxeetan, nire harri-dura eta gozamenerako.

«Dena ez da sexua», dio neskak, noski. «Ez horixe, horrexegatik asmatu zen telebista», erantzuten dio pantaila aurretik James Sapaderrek *La naturaleza del amor* pelikularen trailer telebisiboa. Arrazoi omen dute. Egun haue-xetan sexua erabiltzen ez dudanean telebista ikusten dut. Gero zuek irakur

dezazuen idazten dut. Eta hori ere sexutzat kontabilizatzen dut. Sexuak izugarrizko presentzia hartu du azken boladan nire bizitzan. Eta zeresanik ez Pepe Carvalhorenean. Alboan, badaezpada, sexuaren natura den emea jarri diote. Valeria Marini aktore italiarra haragiz borobildutako pieza da. Haren kontura asmatu dira milurte berri honetako fantasia *felliniarrenak*. Ez da batere fiktizioa, zientziak asmatutako materia erreala baino. Beraz, emakumezkoa denez, laster helduko da urtekarira bere eguna. Ere. Nafarroan ezin hobeto egon arren ordenagailuak ez dabiltzate oso fin. Artikulu hau *ordeñadoraren* bidez bidali behar izan dut. Eta ez da txantxa sexua baizik.